

Tolosagasa, Tolargi
eta 750 Fundazioak
antolatutako
argazki lehiaketa ▶ 3



Harpidedunei banatua ▶ Ostirala ▶ 2006-04-28 ▶ IV. urtea ▶ 871. zenbakia ▶ www.tolosaldekohitza.info

Prestatzaile eta kirolariak formatzeko ikastaroa, Usabalen

TOLOSA ▶ Maiatzaren 4an hasiko da hirugarren ikastaro hau, eta lau jardunalditan banatuko dute

HELBURUAK ▶ «Kirolaren benetako zentzua indartzea eta onegite zabala garatzea» du xede ▶ 2



Dena prest III. Garagardo Festarako

IBARRA ▶ Maiatzaren 4tik 7ra izango da, elkarrekin laguntzeko eta herri giroa bultzatzeko xedez; ekitaldi ugari ere antolatu dituzte ▶ 6

ALEGIA ▶

Bartzelonako Begues koruaren bisita

Txintzarri Txiki-rekin duen trukean ▶ 5

MIREN MARKET ETA JOSE LUIS MARTIN ▶ ZAHARREN BILTOKIKO TABERNA-JATETXEA

«Gogoz eta ilusioz gaude guztia martxan jartzeko»

Bihar zabalduko ditu ateak Irurako Zaharren Biltokiko taberna-jatetxeak ▶ 4



I. GARCIA

TOLOSALDEA-LEITZALDEA ▶

Presoen eskubideak aldarri, deialdiak

Tolosan, Jokin Gorostidi gogoan ▶ 7

Udaberria zure esku

Bidiatzeko, irakurtzeko eta musikaz gozatzeko garaia da. Udaberri honetan, kultura eta aisialdi guztia zure esku **elkar megadendan**

elkar elkar itzaztzen dugutako

BAIDNA - BERGARA - BILBO - DONOSTIA - GASTEIZ - IRUN - IRUÑEA - TOLOSA

www.elkar.com

GIZARTEA ▶



Ezker-eskuin: Manu Gonzalez, Andoni Imaz, Enrique Ayerbe, Iñaki Ugarteburu eta Ramon Arbillaga. N. L.

«Kirolaren zentzua indartzeko» lanetan

Kirolari eta entrenatzaileen formakuntzarako 3. ikastaroa antolatu du Oreki Fundazioak, Usabalen, 4 jardunaldietan

NOELIA LATABURU

Kirolari eta entrenatzaileen formakuntzarako 3. ikastaroa antolatu du Orekin Fundazioak datozen asteetarako Usabalen, Tolosako Udalararen, Foru Aldundiaren eta Asuncion klinikaren laguntzarekin. «Kirolaren benetako zentzua indartzea eta onegite zabala garatzea» helburu duten jardunaldiak Usabalen egingo dira; bertan, gazteen kirol heziketa integralaren gaia jorratuko dute batik bat, «osasuna, errendimendua eta portaera etikoarekin» loturiko alde garrantzitsuenak garatuz eta beraien buruz eztabaidatuz.

Atzo burutu zuten, hain zuzen, aurkezpen ekitaldia, udaletxean. Bertan izan ziren, Oreki Fundazioko Enrique Ayerbe, Tolosako kirol zinegotzi Andoni Imaz, Oreki Fundazioko Manu Gonzalez, Foru Aldundiko Iñaki Ugarteburu eta Asuncion klinikako Ramon Arbillaga. Ayerrek «gazterian, osasun, kirolan eta etikan» oinarritu nahi dutela azaldu zuen, «balore tradizionalak hausnartuz eta egokituz». Ugarteburuk, bestalde, «hausnartzeko eta eztabaidatzeko» tartea izateko garrantzitsua dela esan zuen.

Usabalgo Konferentzia gela baliatuko dute ikastarorako. «Gela hau estreinatuko dugu ekimen honekin», azaldu zuen Andoni Imazek. Maiatzaren 2an hasi eta, asteartero, maiatzaren 23ra arte luzatuko dituzte. Kirol eta osasun alorreko pertsonak hartuko dute parte, besteak beste, Imanol Fernan-

EGITARRAUA ▶

1. JARDUNALDIA: MAIATZAK 2

19:00etan. Aurkezpena, Enrique Ayerberen eskutik.
19:10. *Eskolarteko eta oinarri kirola Gipuzkoan.* Hizlaria, Imanol Fernandez de Larrinoa.
19:45. *Ariketa fisikoa eta osasuna; onurak eta kalteak.* Hizlaria, Luis Mari Zulaika.
20:20. *Lesioen patologia. Lehen sorospenak eta prebentzioa.* Hizlaria, Ines Burutaran.
20:55. Eztabaida.

2. JARDUNALDIA: MAIATZAK 9

19:00. Manu Gonzalezek zuzendua, aurreko jardunaldiko laburpena.
19:10. *Egoera fisiko orokorra. Metabolismo energetikoa eta errendimendua.* Hizlaria, Iñaki Arratibel.
19:45. Denboraldiaren plangintza.
20:20. *Elikadura, hidratazio eta kirol errendimendua.* Hizlari, Jose Manuel Gonzalez de Suso. Gazteleraz.
20:55. Eztabaida.

3. JARDUNALDIA: MAIATZAK 16

19:00. Manu Gonzalezek zuzendua, aurreko jardunaldiko laburpena egingo dute.

dez, Xabier Muriel, Jose Manuel Gonzalez de Suso, Francisco Garmendia, Iñaki Arratibel, Luis Mari Zulaika, Ines Burutaran eta Jose Manuel Gonzalez

19:10. *Dopajea. Dopajearen aurkako legedia eta txiza laginak hartzeko protokoloa.* Hizlaria, Manu Gonzalez. Gazteleraz garatuko du hitzaldia.
19:45. *Etika. Kirolaren zentzua.* Hizlaria, Francisco Garmendia.
20:20. *Dopajearen aurkako programak. Baloreak eta olinpismoa. Dopajeari erantzuna, kirol ikuspegitik.* Hizlaria, Manu Gonzalez. Hitzaldia gazteleraz eskainiko du.
20:55. Eztabaida.

4. JARDUNALDIA: MAIATZAK 23

20:00. Manu Gonzalezek zuzendua, ikastaroaren ideia garrantzitsuenen azterketa.
20:10. *Mahai-ingurua. Gaia: Goi mailako kirolari izatea.* Parte-hartzaileak izango dira Andoni Imaz, Iñaki Perurena, Abraham Olano, Iñaki Murua eta Asier edo Aimar Olaizola.
21:00. Enrique Ayerrek ziurtagiriak eta etika kodigoak banatuko ditu.
21:15. Ikastaroaren itxiera. Bertan izango dira Iñaki Ugarteburu, Jokin Bildarratz, Ramon Arbillaga eta Enrique Ayerbe.
21:15. Amaiera emateko luncha.

Aramendi. Parte hartu nahi dutenek 5 euro ordaindu beharko dituzte. Antolatzaileek deia «kirolari gazte, guraso eta entrenatzaileei» ireki diete.

GIZARTEA ▶

1980-81 denboraldiko Realari omenaldia, gaur

Liga irabazi zuten jokalarientzat Txinpartak ekitaldia antolatu du, 19:00etan, udaletxean

N. LATABURU

Aste honetan 25 urte bete dira Realak lehen Liga irabazi zuenetik. Hori dela eta, 1980-81 denboraldi horretan taldean jokalariek omenaldi beroa jasoko dute, Txinparta elkartearen eskutik. Gaur egingo diete omen, udaletxeko batzar aretoan, 19:00etatik aurrera.

«Ekitaldi txikia» dela eman dute jakitera antolatzaileek, non garaiko Realeko hainbat

jokalarik hartuko duten parte. Omenalditxoaren ostean, berriaz, afari legea egingo, 21:00etatik aurrera, Martinez jatetxeak prestatuta.

Guztia prest izan ahal izateko laguntza eskaini duten guztiei eskerrak luzatu nahi izan diete Txinparta elkartekoek, alde aurretik. Hauek izan dira, hain zuzen ere, laguntzaileak: Tolosako Udala, Martinez jatetxea, Joxe Juan Villanueva ardoak, Eceiza Etxea eta Urraki Komertziala.

KULTURA ▶

Iñaki Olazabalen eskulturak, gaurtik Aranburun

Erakusketa berri bat hartuko dute, hemendik aurrera, Aranburu Jauregiko aretoek. Gaur inauguratuko dute Iñaki Olazabalen eskultura erakusketa bertan, 19:30ean. Artistaren lanak maiatzaren 27n izango dira ikusgai Aranburun, arratsalde, 17:30etik 20:30era, asteartetik larunbatera bitartean.

POLITIKA ▶

Segi-k deituta, konzentrazioa gaurko

Tolosako Segi-k mobilizazio egunera deitu du gaurkoan, *Isma*ren aurkako epaiketa salatuz. Hala, 19:00etan konzentrazioa egingo dute Trianguloan. *Euskal gazteriarri ere su-etena* lelopean. Egian epaituko duten gazte tolosarrari atxikimendua erakutsi nahi diote konzentrazio honen bitartez.

GERTAERAK ▶

Atxilotu bat, polizia kontrolak ekidin zituelako

Herenegun arratsaldean F. G. G. 34 urteko gizona atxilotu zuen Ertzaintzak, ustez astearte gauean hainbat polizia kontrol ekidin zituelako. Atxilotuak furgoneta bat gidatzen zuen eta arriskuan jarri zituen ertzainak eta oinezkoen osotasun fisikoa. Iturrien arabera, furgoneta argirik gabe irten zen Lasarte teko industrialgune batetik Andoain aldera; handik Tolosara sartu zelarik.

MENDIA ▶

Alpino Uzturpe elkartearn irteera, etzi

Alpino Uzturpe mendi elkar-teak irteera antolatu du etzi Agoitz - Itoiz - Elkoatz ibilbidearekin. Bazkideek 10 euro ordaindu beharko dute eta ez bazkideek, berriaz, 12 euro. Irteera Pablo Gorosabeletik izango da, 07:00etan eta, 6 ordu iraungo ditu. Informazio gehiago elkartean bertan eska daieke.

KULTURA ▶

Aranburun, Patxi Zubizarretaren errezitaldia

Kultur Agenda bete dago asteburuan kultur gune ezberdinetan. Batetik, Aranburu Jauregian, gaur, 20:00etan, *Hamar mezu eta dei bat* poesia emanaldia izango da ikusgai eta entzungai. Patxi Zubizarretak jarriko ditu hitzak, Txema Garces tolosarra ariko da kontrabaxuan eta Josetxo Goia-Arabe saxoan. Bestetik, bihar, Kultur Etxean, 17:30ean, *Titirikontu kontari* txotxongiloak izango dira.

GIZARTEA ▶

Tolosa ikusteko moduak erretratueta biltzeko aukera

2007ko egutegi ofiziala egiteko erabiliko dira argazki lehiaketako irudi onenak

ESTI EZEIZA

Nola ikusten duzu Tolosa? Izenburupean aurkeztu dute Tolargik, Tolosagask eta Tolosa 750 Fundazioak antolatutako argazki lehiaketa. Aurtengo urtea berezia da, arrazoi horregatik. «Jakín nahi dugu irudien bidez ea zer esan nahi duen herritarrentzat Tolosako sorreraren 750. urteurrenak», adierazi dute antolatzaileek. Tolosako herriaren arkitektura, tolosarrak beraiek, tradizioa, festak, kirola, ingurunea... erretratatu ahal izango dute parte-hartzaileek, «zeuen gustora». Irudi hauekin argazkilariek norberarentzat Tolosatik adierazgarriena zer den adierazi beharko dute.

Lehiaketaren oinarriak

Herritar guztiengana zabaldua dagoen lehiaketa honen helburua 2007ko egutegi ofiziala osatzea da, aukeratzaren diren irudiekín Tolargi eta Tolosagaskaren egutegia osatuko baitute. Eta saritutako erretratuak azalean agertuko dira. Bestetik, lehiaketara aurkeztutako argazkiak helburu publikoak duten ekitaldietan erabiliko dituzte, eta Tolosako artxiboan gordeko dituzte.

LEHIAKETA ▶

Izenburua. *Nola ikusten duzu Tolosa?*

Gaia. Librea.

Formatua. Argazki papera edo CDa.

Argazkiak entregatzeko. Tolargiren bulegoa (Pablo Gorosabel, 34-behea) edo Tolosagaskaren bulegoa (Arostegieta, 18-behea).

Sariak. Lehenengorentzat, 750 urteurrena saria: urtebeteko argia eta gasa doan. Gainontzeko hamabi finalistentzat, erdiek urtebeteko argia doan izango dute, eta gainontzekoek gasa.

Parte-hartzaile bakoitzak nahi adina argazki bidali ditzake. Gaia librea izango da, eta argazkiak Tolosa hirian egin beharko dira. Argazkiak paper fotografikoan edo CD formatoan aurkeztu beharko dira. Paperean, gehienez 20x30 zentimetroko neurria izan beharko dute. Eta digitalean, gutxienez 4Mbeko formatua eduki beharko dute. Erretratuak Tolargiren bulegoan edo Tolosagaskarenean utzi beharko dira.

Denera, 13 irudi sarituko dituzte. Hauetako seirek urtebe-



Tolargiko, Udaleko, 750 Fundazioko eta Tolosagaskako ordezkariak. HITZA

teko argia doan irabaziko dute, eta beste horrenbestek, urtebeteko gasa doan. Azken irabazleak 750. urteurrenako sari berezia eraman ahal izango du, hau da, urtebeteko argia eta gasa doan.

Baina saritua Tolargi edo Tolosagaskaren bezeroa ez bada, saria 2005eko urteko fakturaren zenbatekoa izango da, eta honen egiaztagiria aurkeztu beharko dute, 600 euroko mugarekin. Ordainketa taloi bidez emango da, 2005. urteko kon-

tsumoaren zenbatekoarekin eginda.

Argazkiak aurtengo irailaren 29a baino lehen aurkeztu beharko dira. Emaitzen epaia urriaren 11n aterako da, eta irabazleen izenak www.tolosa750.net web orrian eta prentsan argitaratuko dira. Honela, antolatzaileak telefono edo posta elektronikoen bidez jarriko dira harremanetan irabazleekin. Informazio gehiago nahi duenak helbide berean kontsulta dezake.

NATURA ▶



Gaur amaituko dira Naturgintzako jardunaldiak

E. Ezeiza ▶ Naturgintzak antolatutako jardunaldien barruan, herenegun, *Emakumea eta hiria: Sostengarritasun afektiboa* hitzaldia eskaini zuen Teresa del Valle EHUKo Gizarte Antropologiako katedradunak. Azken hitzaldia gaur emango dute Joaquín Araujok eta Antonio Fraguasek, *Ingurumena beti tartean* izenburupean. E. EZEIZA

TURISMOA ▶



Donejakue bidearen lehen seinalea jarri dute herrian

E. Ezeiza ▶ Tolosa Gipuzkoako Donejakue bidearen erdian aurkitzen da. Honela, asteazkenean, Triangulo Plazan ipini zuten ibilbideko lehenengo seinalea. Ekitaldian, Udalak, Eusko Jaurlaritzako Turismo Sailak eta Tolosaldea Garatzen S.A.k hartu zuten parte. Igandean, berriz, Hernani-Tolosa erromes bidea egingo da. E. EZEIZA

GIZARTEA ▶

Gure Txokoa elkartearen DVDa aurkeztuko dute

Iaz Gure Txokoaren 75. urteurrena zela-eta DVD bat egin zuten elkartekoek. Honen aurkezpen ekitaldia bihar izango da, Kultur Etxean, 12:00etan, bideo proiektzio batekin. Bertan ikusi ahal izango dira 2005. urtean burututako ekintza guztiak, eta elkartearen beste hainbat gorabehera: historia, abesbatza, Inauteriak... Antolotzaileek adierazi dutenez, «Gure Txokoarentzat ezinbesteko ekitaldia da, eta tolosarrentzat ere erreportia interesgarria».

GIZARTEA ▶

Hernani-Tolosa, Donejakue bideko ibilaldia

Tolosaldea Tour-ekoak jakinarazi dutenez, bihar Donejakue bideko kredentzialak eman eta zigilatuko dituzte Santa Maria, 1 atzekadean, Kale Nagusiaren sarreran duten bulegoaren atzeko aldeko lokalean. Honez gain, etzi, igandean, Hernanitik Tolosara etapa bat egingo dute, Donejakue bidekoa. Hau Hernaniko plazatik goizeko zortzietan abiatuko da. Parte hartu nahi dutenek 943 69 74 13 telefono zenbakira dei egin dezakete.

KIROLA ▶

Medikuntza eta kirol zerbitzua Berazubín

Tolosa C.F.k jakitera eman duenez, edozeinentzat eskuragarri du Berazubi estadioaren barruko kirol eta medikuntza kabinetea. Epeak eta baldintzak jakiteko, eta hitzordua hartzeko, astean zehar 943 67 17 49ra deitu.

TOLOSALDEKO HITZA.INFO

Hainbat atal. Gure web orrian gure herrietako berri jakin dezakegu noiz-nahi. Bai egunean gertatutakoari buruz, bai agendako iragarpenei buruz, herrietako irudiak, eztabaidak, inkestak... Hainbat atal ditugu eskuragarri. Erabili eta ikasi!

MIREN MARKET ETA JOSE LUIS MARTIN ▶ ZAHARREN BILTOKIKO TABERNA-JATETXEKO ARDURADUNAK

«Gogoz eta ilusioz gaude guztia martxan jartzeko»

Bihar arratsaldean egingo dute inaugurazioa haur eta helduentzako ekitaldiekin

IMANOL GARCIA

Irurako Zaharren Biltokiko taberna-jatetxea zerbitzurik eman gabe izan da hilabete batzuk. Miren Marketek eta Jose Luis Martinek hartu dute ardura, eta bihar egingo dute inaugurazio ekitaldia. Egia esan, ekitaldi bat baino gehiago egingo dute: 17:30ean merienda emango dute haurrentzat; 18:15ean, Oscar Estangak ipuin kontaketa saioa eskainiko du; 19:00etan, luntxa eskainiko dute; eta 20:30ean kontzertua, hainbat artistekin: Oscar Estanga (euskal musika), Xabier Herrera (reggae), Paul (musika elektronikoa) eta Jose-lito Albahicin (rumba).

Nolatan aurkeztu zineten Zaharren Biltokiko taberna-jatetxearen ardura izateko lehiaketara?

Biok ibili gara aurretik ostalaritzan, eta probatu nahi genuen gu geuk zerbaite eramatea. Bes-



I. GARCIA

te lekuren bat ikusten aritu gara, baina aukera hau aterazen eta Irurako koadrila batek ere animatu gintuen. Herri polita da. Haur txiki bat dugu eta

herri txiki batean nahi genuen hazi. Hemen dena bertan dago: Ikastola, plaza... Gogoz eta ilusioz gaude guztia martxan jartzeko.

Zenbat denborarako duzue esleipena?

Orain sei hilabeteko frogapea dugu, eta gero bost urteko epea.

Zer eskaintza egingo duzue?

Menua emango dugu, aukera zabalarekin, eta plater konbinatuak, ogitarakoak eta pintxoak ere eskainiko ditugu. Afariak emateko ere prest egongo ginatke. Ikusi behar dugu jendeak zer eskatzen duen. Ez dakigu oraindik aste-ko zein egunetan egingo dugun atsedena; hori ere, bezeroen arabera izango da. Bestalde, hilabetean behin kultur ekitaldiren bat antolatu nahi dugu.

Zein harrera izan duzue?

Oso ondo hartu gaituzte, bai Udalak eta baita zaharren elkarteok ere. Lehendakaria, Mari Paz, lehenago taberna-jatetxearen ardura izan zuen, eta asko laguntzen ari zaigu. Jende-ari abisatzen ari zaio martxan jartzekoak garela.

VILLABONA ▶

Olaederrako VIII. Futbito Torneoazken txanpan da

Irurako Gazte Asanblada-Itzuli Taberna eta Karhe-Amaroz, finalerdiak

ERREDAKZIOA

Olaederreko VIII. Futbito Torneoazken txanpan da. Maiatzeko asteburuetan jokatuko dituzte finalerdiak eta finala. Igandetan izango dira partidak, larunbatetan zenbait ekitaldi egingo baitira kiroldegian.

Finalerdiak joan-etorrikoak izango dira. Maiatzaren 2an Irurako Gazte Asanbladak eta Itzuli Tabernak 11:30ean, alde batetik, eta Karhe eta Amaroz, 12:30ean, bestetik, jokatuko dute. Maiatzaren 14an, ordu berean etorriko jokatuko dute.

Finala maiatzaren 21ean izango da. 11:00etako partidand hirugarren eta laugarren postua erabakiko da. Finala 12:00etan izango da, eta sari banaketa 13:00etan.

ALKIZA ▶

Herriko mapa eta DVDa salgai jarri dituzte

ERREDAKZIOA

Alkizako mapa (5 euro) eta DVDa (10 euro) salgai jarri dituzte toki hauetan: Alkizako udaletxean, Ostatu jate-txean, Elizegi tabernan, Otsamendi jatetxean, Tolosaldea Tour-en eta Tolosako Arteka dendan.



TOLOSA MOTOR, S.A.

San Esteban auzoa, 14-A • 20400 Tolosa (Gipuzkoa)

Tel.: 943 65 03 37 • Faxa: 943 65 29 38 • tolosa@tolosa.redpeugeot.com

207



hitza
argazki
lehiaketa

bidali argazkiak


ARGAZKIAK NORA BIDALI

▶ P. elektronikoa: tolosaldean@tolosaldekohitza.info
▶ Postaz: Argazki lehiaketa. Tolosaldeko eta Leitzaldeko Hitza. Araba etorb 5, atzea • 20400 TOLOSA

Nahi baduzu, argazkiak Tolosako edo Leitzako HITZaren egoitzetara ekarri

OINARRIAK: www.tolosaldekohitza.info

Sari nagusia



Bidaia Agentzia
bidaide
www.bidaide.gruposercor.com

BIDAIA paregabe bat zure neurria

2 laguntzetaz 5 eguneko egonaldia, mantenu erdiarekin Asturiasen edo Costa Bravan



Erniobeia, 6-behea • 20150 Villabona
Tel.: 943 692 693
bidaide@gruposercom.com

ZOKKETA APARTAK

PARTE-HARTZAILE ETA BOTOEMAILE guztien artean HITZaren motxila eta mendiko gerriko poltsa zozkatuko dira



ALEGIA ▶ MUSIKA

Begues abesbatza eskualdean

Txintxarri Txiki abesbatzarekin duen elkar-trukeagatik etorriko da Alegiara

ERREDAKZIOA

Alegiako Txintxarri Txiki abesbatzak eta Begueseko (Bartzelona, Katalunia) Coral Infantil Montau abesbatzak elkar-trukea egitea erabaki zuten 2004ean. Iaz alegitarrek Beguesen izan ziren eta kontzertu bat eskaintzeaz gain, 3 egun pasatu zituzten bertan. Asteburu honetan, kataluniarrak etorriko dira Alegiara. Alegiako Txintxarri Abesbatzak Montau abesbatzarekin duen ha-

rremanetik sortu da elkar-trukea egiteko aukera.

20 urte dauzka haur abesbatzak; izen bereko helduen abesbatzaren barnean sortu zen. 4 eta 14 urte bitartekoek kantatzen dute bertan, talde desberdinetan banatuta: Anna Jacas, Mireia Ibarz eta Jordi Llobet i Martik zuzentzen dituzte.

Kataluniako Haur Abesbatzen Federazioak urtero antolatzen dituen topaketetan parte hartzen dute: Kataluniako hainbat lekutan izan dira jada.



Txintxarri Txiki-ko kideak, Begues abesbatzakoekin kantatzen. HITZA

Bihar arratsaldean helduko dira Alegiara. Herria ezagutzeko aprobetxatuko dute eta, ondoren, haur abesbatzako kideen etxeetan lo egingo dute. Hurrengo egunean kontzertua eskainiko dute bi abesbatzek elkarrekin Alegiako elizan.

Igandeko kontzertua

12:00etan hasiko da kontzertua elizan. Txintxarri Txiki abesbatza ariko da lehenik; bost kantu eskainiko dituzte Idoia Iraolaren zuzendaritzapean. Gaztelaniaz, katalanez

eta frantsesez ere kantatuko dute. Javi Bustoren *Mantxa Pio* eta Baltasar Bibiloniren *Jo i un pastor* ere abestuko dituzte. Aitor Iraola Txintxarri Txikiko kideak lagunduko du pianoan kanta batzuetan.

Segidan, Montau haur abesbatzak kantatuko du. Sei abesti eskainiko dituzte Jordi Llobeten zuzendaritzapean. Urtarrilean 250 urte bete ziren Mozart jaio zela, eta, haren jaiotzaren urteurrenari ohore ginez, haren bi kantu entzungo dira: *Canço de bressol* eta *Joc d'infants*. *El cant dels ocells* kantu kataluniarra ere eskainiko dute, eta, ondoren, Laboaren *Txoria txori* eta *Aldapeko*.

Coral Infantil Montauarekin batera haien elkarteko gazte abesbatzak ere abestuko du, *Cor Ad Libitum* koroak, hain zuzen; Oscar Petersonen *Hymn to Freedom* kantatuko dute.

Kontzertuari amaiera emateko, denak batera ariko dira, *Xarmengarria* eta *Joan del riu* Kataluniako kantu herrikoia abestuz.

AHT ▶



«Eztabaida bultzatu behar da»

N. Urbizu ▶ Villabona eta Aiztondo bailarako AHTren aurkako kontzentrazioa atzokoan egin zuten, Alegiakoan bezala. Egungo fasea «garrantzitsutzat» hartuz, «eztabaida parte-hartzailea bultzatzea» eskatu dute. Halaber, bilerara deitu dituzte herritarrak maiatzaren 2an, 19:30ean, Villabonako Gaztetxean. I. GARCIA / N. URBIZU

ULERTZEKO Garai Berria

berria²

LIZARBI
Kutxa, mahai, aulki etab.
Aitzariak - Zuzentza orokorra
Tolosa eta inguruko herrietan
San Esteban sarea
Tel.Fax: 945 695 692 - TOLOSA

IBARRA ▶ GIZARTEA

III. Garagardo Festari ekiteko dena prest

Maiatzaren 4an, 5ean, 6an eta 7an izango da; elkarteak laguntzea eta herri giroa bultzatzea izango du helburu

IÑIGO TERRADILLOS

«Azken bi urteetan izandako arrakastaz lagundurik», maiatzaren 4an, 5ean, 6an eta 7an izango da Ibarako III. Garagardo Festa, Ibarako arraunlariak, Eneko Aritzaren Lagunak elkarteak, Haitzetan Raju mendi taldeak, Segi-k eta Ibarra Racing-ek antolatuta, eta Ibarako Udalak, Hauspoa kultur elkarteak, Ibarako Gaztetxeak, Alurr dantza taldeak, Ibarrra Herri Ekimenak, Denak areto futbol taldeak, Bai Euskal Herriari-k, Sokatira taldeak, Ibarako Gaztetxea futbol 7-k, Ibarako Zikloturista Taldeak eta Ibarako herritar boluntarioek lagunduta.

Ostegunean eta igandean 18:00etan hasi eta 00:00ak bitarte izango da zabalik azoka; eta ostiralean eta larunbatean, berriz, 18:00etatik 02:00etara. Egun horietan hainbat ekitaldi izango dira gozatzeko aukera izango da garagardo mota desberdinak edan eta ohiko jakiak dastatzeko.



Ibarako Garagardo Festari hasiera eman zioten unea. I. TERRADILLOS

III. GARAGARDO FESTA ▶ EGITARAUA

OSTEGUNA, MAIATZAK 4
18:00. Azokaren irekiera.
21:30. *Ya saldra* antzerkia.

OSTIRALA, MAIATZAK 5
18:00. Festaren hasiera.
23:00. Gose-ren kontzertua.

LARUNBATA, MAIATZAK 6
15:00. *Ezetx baxerriak 60 kilo sagar erre jan!* Eneko Aritzaren Lagunak elkarteak egiten ari

den *Sua* filmarako apustua. Animatzen denak izaskungo plazan agertu beharko du.
18:00. Festak plazan jarraituko du.
18:30. *1,2,3... Inaxito* antzerkia haurrentzat Trikuharri taldearen eskutik.

IGANDEA, MAIATZAK 7
18:00. Azokaren hasiera.
18:30. Herri kirolak.

arekin batera; hain zuzen ere, Frantzia, Belgika, Australia, Ingalaterra, Danimarka, Espainia, Irlanda, Amerikako Estatu Batuak, eta bertako 19 garagardo mota probatzeko aukera izango da. «Aurreko urteko arrakasta ikusirik», 5 kalimotxo mota ezberdin ere jarriko dituzte. Edateko pitxarekin batera bidaia baten zozketarako txartelak ere emango dituzte.

Garagardo Festa Ibarako plazan jarriko dute, 3 karpetan banatua; 2 karpetan 700 pertsonen jaten emateko lekua egongo da, eta bestea edaria zerbitzatzeko baliatuko dute.

Elkarteak laguntzeko

Talde antolatzaileentzat diru laguntza lortzea eta auzolanaren bitartez herri giroa bultzatzea izaten du helburu Ibarako Garagardo Festa. Aurten goan ateratako dirua Ibarako arraunlariak entrenatzeko behar dituzten material eta instalakuntzetarako, Eneko Aritzaren Lagunak taldearen azken proiektu *Sua* filma grabatzeak eta zabaltzeak suposatzen duen gastuaren zati bati aurre egiteko, Haitzetan Raju mendi taldeak urteko ekitaldien (diapositiba emanaldiak, eskalada ikastaroak, Gorritira irteera...) zati bat ordaindu ahal izateko, Ibarako Segi-k herriko jaietan kontzertu bat egiteko eta Ibarra Racing-ek Challenge Yamaha Txapelketan parte hartzeko baliatuko dute.

BERASTEGI ▶ INGURUMENA

Aldin elkarteak gustura 'Berastegiko mendiak garbi' ekimenarekin

Zaborrak mendialdera joan ez daitezela ahalegina egiteko eskatu diote Udalari

I. TERRADILLOS

Pasa den larunbatean 16 lagun elkartu ziren Aldin kultur eta kirol elkartearen deiarri erantzunez, Uli aldeko mendi garbiketa saioari ekiteko asmotan. Elkartearen arabera, «eguraldia kontuan hartuta, erantzuna

iragarki laburrak ▶

LANA

Igeltseroa. Erreformetarako igeltseroa behar da, peoia eta ofiziala. Interesatuak deitu 615 74 86 61ra.

bikaina izan zen, eta pozgarria da gehiengo gazteak izateak.

Bi traktoreetan eta sei ko taldeetan banaturik, Antsoliz erre-kako ingurua batetik, eta Arrate-Atxokorbe ingurua bestetik garbitzen aritu ziren. Bi erremolke handi eta traktore txiki bat, zaldi-gurdien ardatz eta gurpilekin, bizikletekin, bergailuekin, hozkailuekin, plastikozko ontziekin, bidoiekin, botilekin... beteta jaitzi zituzten herrira. Tintoko erreka bazterrean, Karobian, Arrateko zentralaren azpiko aldean... batez ere, zabor asko atera zuten, baina «asko eta asko gelditu da beste egun baterako».



Mendian garbiketaren aritu zireneko une bat. HITZA

Herriko plazan kontainerrak aurkitu ez zituztenez, elizaren ondoko aparkalekuan zeudenean hustu zituzten zaborrak. Aldin elkarteak adierazi duenez, «garbi genuen, egun bateko gure ekinarekin mendiek ia lehen bezain zikin jarraituko zutela, zabor asko baitago; helburu nagusia, zaborraren kaltearen inguruan herritarren kontzientzia piztu eta jendearen sentsibilizazioa bultzatzea zen, eta neurri batean lortu dugun ustea dugu».

Halaber, azaldu dute kontainerrak elizaren ondoko aparkalekuan jartzearen ondorioz ez dela lortu jende askok bildu dituzten zaborrak ikustea, horrek beraiengan izan zezakeen eragina ekidinez.

Bestalde, Aldin elkarteak Udalari eskatzen dio «sortu den giroa aprobetxatuz» informazioa dezala nora bideratu behar dituzten sortzen diren zabor mota guztiak, eta egin dezala ahalegina zaborrak mendialdera gehiago joan ez daitezela.

BERASTEGI ▶

Antzerki taldearen saioa bihar eskolan

Berastegiko antzerki taldeak emanaldia eskaniko du bihar, 19:00etan, eskolako kiroldegian. Bi saio emango dituzte, *Zuzendariaren zain eta Komentua eta taberna*.

IBARRA-TXARAMA ▶

Jaiak antolatzeko bilera datorren asteartean

Ibarako San Bartolome jaiak antolatuta asmoz, datorren asteartean, maiatzaren 2an, 20:00etan, Festa Batzordea bilduko da Udal pleno aretora. Jaietan antolatzen parte hartzeko deialdi berezia egiten diete ibartar guztiei. Bestalde, Txaramako jaiak antolatzeko bilera ere maiatzaren 2an egingo dute, 20:00etan, Atari Eder lokalean. «Denen parte-hartzea garrantzitsua denez», auzotar guztiak deitu dituzte bilerara.

TELEFONOAK ▶

Larrialdiak. ((112)) Osasuna.

- ▶ **Alegialdea.** Osasun z.: 653212
- ▶ **Anoeta-Alkiza-Hernalde.** Medikua: 65 23 39
- ▶ **Asteasu.** Medikua: 692423
- ▶ **Baliarrain.** Medikua: 889003
- ▶ **Berastegi-Elduain.** Medikua: 683361
- ▶ **Bidegoian.** Medikua: 681134
- ▶ **Ibarraldea.** Osasun etxea: 672411
- ▶ **Ikaztegieta.** Medikua: 653329
- ▶ **Irura.** Osasun zentroa: 690720
- ▶ **Leitza.** Osasun z.: 948 510800
- ▶ **Orendain.** Medikua: 655595
- ▶ **Orexa.** Medikua: 682228
- ▶ **Tolosa.**
 - ▶ Anbulatorioa, larrialdia: 461111
 - ▶ San Esteban: 006800
 - ▶ Gemikako arbola: 006900
 - ▶ Amaroako dispen.: 672637
 - ▶ Asunzioz klinika 675799 - 67 53 90 (larrialdiak)
 - ▶ **DYA:** 672536
 - ▶ Gurutze Gorria: 674888
- ▶ **Villabona.** Anbulat.: 006970
- ▶ **Zizurkil.** Aiztondo zerb.: 693930

- ### Garraioak.
- ▶ Renfe: 902 24 02 02
 - ▶ Donostiako autobusa: 361740
 - ▶ Tolosaldea bus: 650621
 - ▶ Leitzarar autob.: 948 221015
 - ▶ Taxia: 670420
 - ▶ Taxia (Leitza): 608 873016
- ### Besterik.
- ▶ Ertzaintza: 538820
 - ▶ Tolosa-Udaltzaingoa: 675858
 - ▶ Tolargi: 650016
 - ▶ lurramendi egoitza: 670325
 - ▶ Tolosa gasa: 675320

POLITIKA ▶

Presoen eskubideak aldarri Etxerat-ek, ostiral honetan ere

Euskal preso politikoen Euskal Herriratzea izanen dute lelo nagusi herriz herri egitekoak dituzten elkarretaratzeetan

ERREDAKZIOA

Gaur iluntzean elkarretaratzeak egingen ditu Etxerat-ek Euskal Herriko herri guztietan: «Euskal presoak Euskal Herrial, Estatus politikoa orain» izanen dute beste behin ere aldarri nagusi, Tolosaldean eta Leitzaldean ere egingen dituztenean.

Herrian herriko preso politikoen askatasuna eskatuko dute elkarretaratzeetan. Hori bukatutakoan, bestalde, Orendainen, ezker abertzalearen herri batzarra egingen dutela eman dute jakitera bertatik.

Eta Tolosan, berriz, asteartean zendu zen «Jokin Gorostidi gudari handiari agur beroa» eman nahi diote, ezker abertza-

leko kideek bere jaioterrian «udalerrri honetako parte izan zelako».

Gorostidi gogoan

Horrela, ohar baten bidez jakinarazi dutenez, Etxerat-en kontzentrazioa bukatu ostean, herriko udaletxearen aurrean, Plaza Zaharrean, «Gorostidi agur baten bidez besarkatu eta bere ibilbidea eskertzeko» ekitaldi xume bat egitekoa dute.

«Euskal Herriaren gudari aipagarria» izan dela adierazita, Gorostidiri egingen dioten agur ekitaldian parte hartzeko deia egin du Tolosaldeko ezker abertzaleak: «Azkenera arte bakerik eman ez dioten guztiei,

LEKUZ LEKU ▶

Ohiko lekuetan egingen dituzte azken ostiraleko elkarretaratzeak.

19:30ean. Alegian, Amezketan, Anoetan, Ibarra, Tolosan. Tolosan, amaitzean, Jokin Gorostidi omenduko dute.

20:00etan. Adunan, Asteasun, Ikaztegietan, Leitzan, Lizartzan, Villabonan, Zizurkilen.

20:30ean. Orendainen, herri batzarra.

Jokinen izana agertzeko» helburuarekin ere elkartuko dira, beraz.

PILOTA ▶

Aresoko eta Leitzako pilotari gaztetxoak hainbat txapelketetako finaletan dira

Kirol Jokoetako eta Erreka Txapelketei dagozkienak jokatuko dituzte

J. ASTIBIA

Ikasturte osoan astebururo herrian ez ezik, herrialdeko herrietan barrena, hango eta hemengo txapelketetan pilotan aritu ondoren, Leitzako pilota eskolako ikasleek, jada azken saioak dituzte hainbatetan, esaterako, Kirol Jokoetan.

Hala, eskolatik bertatik adierazi dutenez, benjaminetako bikote eta infantiletako bat iritsi dira finalera: Ibai Azurmen-di eta Josu Zabala Aurrerako benjaminek Iturtxipia eskolakoak izanen dituzte aurkari, bihar, 10:00etan, Lizarrako Remontibal pilotalekuan jokatuko duten finalean; jaialdi berean

ariko dira Julen Olano eta Jon Jaunarena ere, infantilen mailakoak dira hauek, kasu honetan, Zugarralde Bren aurka jokatuko dutelarik; Asier Gilek eta Oinatz Mariezkurrenak (benjaminak), berriz, Irurtzuen jokatuko dute, 11:00etatik aurrera, Zugarraldeko C bikoitearen aurka.

LEITZA ▶ FUTBOLA



7 hilabetez lesionatuta egon ondoren Olano berriz ere jokatzen hasia da, baina bizpahiru jokalarri baxa izanen dira. Irudian, Gazte Berriak-en aurkakoa Bengoetxea min hartu zuenekoak. J. A.

Lau jardunen faltan, igoerako postuei eutsiz

Aurrerak bihar ekinen dio berriz jokoari, ia lau asteko geldialdiaren ondoren

J. ASTIBIA

Hilaren 2an jokatutako orain aurreko partidua Aurrera futbol taldeak, Baztanen aurka, eta etxean, 3-3ko emaitza eskuratuz egin ere. Orduz geroztik geldialdia izan dute Lurraldeko Ligan, Kopako Txapelketa zela eta. Asteburu honetan ekinen diete berriz ere Ligako partiduei, aurrerantzean eta maiatzaren 21ean bukatu arte, gelditzen diren lau jardunaldiak, jarraian jokatuko dituztelarik.

Lau gelditzen zaizkie, baina haiek garrantzitsuak. Izan ere, Preferenterako igoerako ligaxkan parte hartzea dute lehen helburu leitzarrek, denboraldian zehar makina bat aldiz nabarmendu izan duten moduan, eta horretarako lehen lau taldeen artean egotea derrigorrezkoa du Irujok eta Arrizurietak prestatzen duten taldeak. Eta hor daude: bigarren lekuan, aurrenekoek baino partidu bat gutxiago jokatuta eta 46 punturen jabe. Leku hori babestu eta mantendu beharrean daude lei-

SAILKAPENA ▶

LURRALDEKAKO 1. MAILA 22. jardunaldia

Taldea	I	B	G	P
1. Gazte Berriak	15	5	1	50
2. Aurrera	14	4	2	46
3. Baztan	13	6	2	45
4. San Inazio	12	5	3	41
5. Irunberri	11	6	4	39
6. Beti Onak	6	7	8	25

tzarrak heldu diren partiduetan, San Inazioarekin eta Irunberriarekin ere jokatzeakoak baititu partidukoak. Pausoz pauso, beraz.

Asteburu honetan, Atarrabian, Beti Onak-en aurka jokatuko du, bihar bertan, partidua 17:30ean hastekoa delarik. Puntu baliotsuak irabazteko ahalegina egingen dute leitzarrek.

Gazteen mailan, berriz, hauek ere bihar dute partidua. Jardunaldi honetan etxean jokatzea egokitzen zaio Aurrerari. Kasu honetan Eguesibarreko taldea izanen dute arerio Arkixkilen, 17:00etatik aurrera.

- ▶ hilberriak
- ▶ urteurrenak
- ▶ eskertzak

Gipuzkoan

50.000

etxetara

ESKELAK
19:00ak arte hartzen dira
Telf.: 943 65 56 95
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info

HITZA guztietan prezio beragatik

Harpidedunei banatua ▶ 2006ko apirilaren 28a, ostirala ▶ IV. urtea

GAURKO EGURALDIA



goizez



arratsaldez



beroena

12

hotzena

11

BIHARKO EGURALDIA



goizez



arratsaldez



HITZA-KO BEZEROEN ARRETA ZENBAKIA
 (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko...)

943 30 43 46

AGENDA ▶

DEIALDIAK

Alegia. Alegiako Lehen Bertso Paper Lehiaketako sariak banatuko dituzte Intxurre elkartearen. Gero, afaria egingo dute bertan.
Tolosa. Alpino Uzturre elkarteak Agoitz-Itoitz-Elkoatz (Zarikietako mendia) irteera antolatuko du igandera, hilaren 30a. Izen-ematea, elkartearen (Gudari, 5. 943 65 27 89).
Tolosa. Tolosako Segi-k deitutako kontzentrazioa, *Isma*-ren aurkako epaiketa salatzen. 19:00etan, Trianguloan.
Tolosa. Patxi Zubizarreta idazlearen poesia errezitaldia. 20:15ean, Aranburu Jauregian.

HITZALDIAK

Tolosa. *Ingurumena beti tartean.* Hizlariak: Joaquin Araujo eta Antonio Fraguas. Aurkezlea: Jokin Bildarratz. 20:00etan, Kultur Etxean. Naturgintza Jardunaldietan.

MUSIKA

Tolosa. Sevillako Vikingo MD taldearen kontzertua. 22:30ean, Bonberenean.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur
Leitza. Plaza, M. Elbarren 36. 112.
Tolosa. Bronte, C. Korreo kalea, 20. 943 67 60 13.

IRRATIA

Txolarre irratiak (107.5, 101.2 FM)
 11:00-14:00. *Tolosaldeko ahotsa* magazina: eguraldia Jose Landarekin, HITZaren errepaso, elkarrizketak, albisteak, agenda, lehiaketa, disko eskainiak...
 19:00-21:00. *Tolosaldeko ahotsa* (errepikapena).
 21:00-22:00. *Zaharrak Berri*, Hala Bedi irratiaren saioa, Arrosa Irrati Ekoizpen Zentroaren eskutik.
 22:00-23:00. *Arkako show* musika saioa.

▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanetan eta iritzien erantzukizunik.

ARGAZKI LEHIAKETA ▶

VILLANAÑE ▶

Isabel Davila.

Euskal Herrian barna jaso du irudi hau Isabel Davilak Aste Santuetako egunetan. Halaxe dio HITZARA bidalitako testu txoan: «Egindako irteera batean topatu nintzen eliza honekin, eta begi zuloatik sartu zitzaidan. Villanañe herrian dago, Araban».



BILBO ▶

Maialen Severino Davila.

Maialen Severino Davilak ere Euskal Herria ezagutzeko aprobetxatu du Aste Santuetako oporraldia. Hain zuzen ere, egun horietan Bilbon ateratako irudi hau bidali du III. HITZA Argazki Lehiaketara. «Benetan udaberria iritsi da Euskal Herrira!», dio.




ALEMANIA ▶

Jon Etxeberria (Hernani).

Hernanitik ere iritsi zaigu irudirik III. HITZA Argazki Lehiaketarako. Jon Etxeberriak bidali digu paisaia hau; hauxe dio: «Argazki hau Aste Santuan Alemania iparraldean ateratakoa da, Baltikoko itsas ertzean».



URTE ASKOAN
 Gontzalo Azurmendi eta Maritxu Gorospe (Zizurkil).
 Urrezko ezteietan zorianak, familiaren partetik.



URTE ASKOAN
 Olatz Dorronsoro.
 6 urte. Zorianak, Olatz, Jon eta denon partetik.

Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberrak...

hitza
 agurren tartea



Udaberriko sustapena Apirilean, maiatzean eta ekainean bakarrik.

“Zatuz gure instalazio berriak ezagutzera eta zure landarea aukeratzeko orduan edo eta zurekin gehien dijoan loraintza proiektu hori aurrera eramateko behar duzun aholkularitza izango duzu.”

8 geranioz osaturiko erretilua

14€

ZULOAGA & GUREAK
 zure konfidantza zasko gardena

943 556 109 - Iparralde bidea z/g. 20014 Astigarraga. Futbol zelaiaren aurrean.